

**Dagoeneko, belaunaldi berriko 850 denda baino gehiago ditu**

## **EROSKI-K JARRAITZEN DU BERE HEDAPEN PLANAREKIN, ETA BESTE SUPERMERKATU BAT INAUGURATU DU DONOSTIAN**

- **1,2 milioi euro inbertituta, supermerkatu berriak 36 lanpostu sorraraziko ditu**
- **930 metro koadroko aretoa izango du saltokiak, eta, gainera, 80 aparkaleku baino gehiago**
- **EROSKI k Donostialdean duen supermerkatu sarean 27 saltoki daude orain**

**Donostia, 2020ko azaroaren 12a.-** [EROSKI](#)k supermerkatu bat inauguratu du gaur Donostian, Pasai San Pedro hiribideko 49.ean. Hala, aurrera doa haren hedapen plana, eta "Zurekin" ereduak dagoeneko belaunaldi berriko 850 denda baino gehiago ditu. Eredu horrek berezitasun hauek ditu: elikagai freskoetan espezialista den gama bat du, tokian tokiko produktuak ditu, eguneroko erosketan dirua aurrezten laguntzen du EROSKI Clubekin, arreta pertsonala ematen du, gama zabala du ekoizleen markak marka propioarekin konbinatzen baititu eta haren jarduera ekoiraunkorra da ingurumenean bere jarduerak duen inpaktua gutxitzeko berrikuntza teknologikoak baitarabiltza.

EROSKIren supermerkatu berriak EROSKI/Center izena edukiko du, eta 930 metro koadroko salmenta aretoa eta 80 aparkaleku baino gehiago izango ditu. Hura martxan jartzeko, 1,2 milioi euroko inbertsioa egin behar izan da, eta 36 lanpostu sorrarazi ditu. Langileek, berriz, 6.200 prestakuntza ordu baino gehiago jaso dituzte, freskoen atalean espezializatzeko eta bezeroei arretarik eta irtenbiderik onena eskaintzeko. Supermerkatua astelehenetik larunbatera egongo da irekita, 09:00etatik 21:00etara.

Supermerkatu berriaren ezaugarrien artean, nabarmentzekoa da bezeroaren arreta pertsonalaren alde egindako apustua, okindegia, harategia, urdaitegia eta arrandegia jarri baititu. Hilero-hilero eskaintzak eta sustapen kanpainak izango dira, kontsumitzaileei aurrezten laguntzeko. Aurrezpen horretan, EROSKI Cluba da erakusgarririk behinena. Bezero-bazkideak markarekin fidelizatzeko programa da, eta oso sustapen erakargarriak ditu, baita Travel Club txartelak lehendik zituen abantaila guztiak ere, zeinak Gipuzkoan 262.000 bazkide baino gehiago baititu. EROSKI k Donostialdean duen supermerkatu sarean 27 saltoki daude orain.

### **Tokian tokiko produktuek garrantzi handia**

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



*"Osasunaren eta elikadura iraunkorragoaren alde hartua dugun konpromisoari dagokion bezala, EROSKIren supermerkatu honen nortasun ikurretako bat tokiko elikagaien sorta zabala da, zeinetan sasoian sasoiko freskoek garrantzi handia hartzen baitute",* esan du EROSKI iparraldean dituen supermerkatuen zuzendariak, Ismene Fulgenciok. Lehen seihilekoan %14,5 igo da EROSKI Euskal Autonomia Erkidegoan saltzen dituen tokiko produktuen kopurua. EROSKI 10.000 produktu inguru merkaturatzen ditu, eta hemengo 1.800 hornitzaile ingururekin dihardu, haiei 650 milioi eurotik gorako erosketa eginez urtero.

Produktu dietetikoek eta biologikoek ere beren tokia dute supermerkatu berrian, elikagai joera berri guztiak biltzen dituzten guneekin. Gainera, atal horretan, produktu espezifiko sorta zabal bat dago, elikagai intolerantziak dituztenentzat (glutena, laktosa...) eta gantz, azukre eta gatz gutxi jan behar dutenentzat. Horretaz gainera, lurrindegi-parafarmaziaren atal zabal bat du, eta prestakuntza berezia duen langilea edukiko du bezeroari zainketa pertsonalerako arreta oso eskaintzeko.

### **Eraginkorragoa eta iraunkorragoa**

Era berean, saltokia iraunkorragoa da ingurumen aldetik; izan ere, kontsumitzen duen energia %60 gutxitzen du supermerkatu konbentzional baten aldean, eta eraginkortasun eta ingurumen iraunkortasun baldintza zorrotzak betetzen ditu; horrek indartu egiten du EROSKI taldeak ingurumenarekin eta gizarte ongizatearekin duen konpromisoa. Hotzaren instalazioan egindako berrikuntza teknologikoari esker, instalazio horrek kontsumitzen duena gutxitu ez ezik modua ematen du bero hondakina berreskuratu eta klimatizazioan erabiltzeko ere; horrela, aurrezpen bikoitza lortzen da. Gainera, argiterian LED teknologia darabil; horri esker, argiztapena homogeneoa da eta ikusmenarentzat oso eroso, eta ingurumen arriskua eta kontsumoa gutxitzen ditu.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)